

Liburuak

KRITIKA

Printzesa begi-zulo. Juan Kruz Igerabide.
Irudiak: Elena Odriozola.
Elkar. 8,25 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Mila loreren usaina

IPUIN HONEN izenburua irakurtzen duena harritu egingo da gure artean, gure tradizioan, ez baita ohikoa printzesak zaindu gabe egotea, printzesek sufritzea, printzesak pertsona arruntak izatea. Eta hain zuzen horrelako pertsonaia aurkezten digute Igerabidek eta Odriozolak ipuin honetan: printzesa pobre bat. Beren lurralde, erreal eta –era berean– miresgarria den lurraldetik alde egin behar izan duen printzesa baten istorioa kontatzen digute.

“Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da, begi-zuloekin, San Borondon uharteko erregearen alaba. Begirada triste nekatua dauka, neguko arratsaldeko lainotsua bezalakoa”. Honela hasten da ipuin hau. Eta hasierako tonu eta estilo hori izango dugu ipuinean zehar; protagonista txiroak ez du izen propiorik, hasiera-hasieratik adierazten zaigu bere egoera fisikoa –begi-zuloak– egoera ekonomiko eta sozialaren ondorioa dela eta, aldi berean, pista batzuk ageri zaizkigu idazkera poetikoaren inguruan. Are gehiago, esaldi horien ondoren ageri den poema txikiarekin: “Begirada eziko / haur zilarra; / negu beltzeko / artizarra”.

Azken urteotan haur literaturan aldaketa nabarmenak izan dira, gaien trataeran, idazkeran, tonuan... eta *Printzesa begi-zulo* hau dugu horren adibide argia. Generoen arteko konbinaketa –agian gehitzea esan beharko genuke– dugu ipuinean; Elena Odriozolaren irudiek islatzen duten sentsazioa, sentimendua, eta informazioari gehitu behar baitiogu narratiba poetikoa eta poemen erabilera idazkeran. Izan ere, arestian ikusi bezala, narratzailearen kontakizunean poema labur batzuk –dozena bat– tartekatu ditu Igerabidek informazioa osatzeko baino poemen bidezko beste kontakizun bat, beste giroketa bat, egiteko.


“Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da” dio egileak hasieran, eta printzesa horren istorioa kontatzen digute idazlearen eta ilustratzailearen artean. Horrela ikusi ahalko dugu nola printzesa hori txiroa izateaz gain triste dagoen; aita galdu eta ama gaixoarekin beren uhartetik alde egin behar izan duen, nola heldu den lehorrera patera batean, nola hasi den lanean supermerkatu batean kutzazain... eta tristurak eta penak begi-zuloak handitzen dizkiotenean nola ezagutu duen printze bat.

Ohiko estereotipoak hautsiz –“inoiz ez baitzuen nahi izan printze urdinik”–, Odriozolak eta Igerabidek eguneroko istorioa kontatzen digute, maitasuneko istorio ederra. Irudiek eta idazkerak –poetikoa, poemak tartekatua, irudien pintzeladak bezala kontatua– are ederragoa egiten duten “mila loreren usaina zuen” printzesaren istorio bitxia. ■

Nolakoa izango da gizaki-robot

Hipotesi batetik abiatzen da Hans Moravecen *Adimenaren umeak*: egunen batean giza-kiaren funtzio fisiko eta adimenezko guztiak baliokide artifiziala izango dutela. Moravecen ustez, pertsona biologikoki atzeratuta geratuko da; bai behintzat, sortu dituen gailu artifizialekin alderatuta. Izan ere, hiltzen garenean *hardwarea* desagertu egiten da.

Baina, pertsona artifizialak edukiz gero, gure gogamena robot horietara transferitu ahalko da, nolabait hilezkor bihurtuz. Lan honetan adimen artifizialaren eremuan eman diren urratsak aztertzen dira, eta galdera batzuk egiten zaizkio irakurleari. Gure galaxian egon al daiteke zibilizazio robotikorik? Robotekin lan eginda *nitasuna* galduko al dugu? ■



Adimenaren umeak.
Hans Moravec.
Gaiak.
266 orrialde.
20 euro.

Antzerkia maite duen gaztearen istorioa

Kutxa-Donostia Hiria saria irabazi zuten iaz Lú Pardok eta Antonio Maurizek, gaztelaniazko antzezlan onenaren alorrean. Meretzimendu hori Eloyren istorioa kontatuz lortu zuten: hamabost urte ditu mutil horrek, eta DBHko ikasketak egiten ari da nekazal giroko institutu batean. Eta ez dabil gustura. Ez du bere lekua topatzen, itota sentitzen da. Lagunak ditu, eta gaitzerdi. Eta, antzerkia, noski. Eloyrentzat, afizioa baino, pasioa baita. Institutuko antzerki taldean parte hartzen du, eta oxigenoa ematen dio. Baina klasera gutxi joaten denez, zigortu egingo dute. “Gela ilunean” dagoen denboran bere burua aurkituko du. ■



El cuarto oscuro.
Lú Pardo / Antonio Mauriz.
Kutxa.
84 orrialde. 8 euro.